

# Musika eta Dantza Hezkuntza Palestinarekin

Mezu hau Euskal herriko musika eta dantza eskola guztietara zabalduko da **EHME**-ren bidez. Musika eta Dantza Hezkuntza Sektorea da deialdi hau luzatzen duena, nahiz eta zabalik dagoen gainontzeko herritar eta elkarte guztiei ere.

## HELBURUA

Palestinako herriari elkartasuna adierazi musika eta dantzaren bitartez. Palestinaren genozidioaren etetea eskatu.

## NOIZ

**Otsailak 16, Igandea - 12:00**

(11:00etan bilduko gara Alderdi Ederren kantuak prestatzeko)

## NON

**Alderdi Eder** (Donostia)

**OHARRA!!** EGURALDI TXARRA eginez gero, GIPUZKOA PLAZAko arkupeetan egingo da ekimena



## ZER EGINGO DUGU - ESKALETA

1. **SARRERA**ko manifestua irakurriko da.
2. **Sirena hotsa.**
3. **1. KANTUA: PALESTINAREN ZAURIAK.**  
Musikari eta dantzari guztiek aurrez prestatutako kantu hau jo eta dantzatuko dugu Donostiako Alderdi Ederren.
4. **Donostian errefuxiatuta dauden Palestinar familien lekukotza.**
5. **2. KANTUA: Txoria-txori** (M.Laboa/Joxan Artze)
6. **3. KANTUA: Mendian Gora** (Imanol/Amuriza)
7. **Amaiera.**

\*Kantatzeko gogo gehiago sumatzen badugu, kantu gehiago prest daude inprimatuta (Martxa baten lehen notak, Azken dantza, Agure zaharra)

## NOLA EGINGO DUGU

11:00-12:00 tartea guztiok batera kantu eta dantza entseatzeko erabiliko dugu, beraz, ez larritu, bertan landuko baititugu.

Instrumenturik gabe dagoen edonork ere parte hartu ahal izango du ekimenean kantuan edota dantzan.

## MUSIKA

Musikariek aldeztatik grabaturik dagoen oinarri baten gainean joko dute.

Honekin batera bidaltzen dizuegu ondorengo materiala:

- Kantuaren audioa
- Kantuaren gainetik jotzeko play-along-a
- Partiturak
- Hitzak

Melodia abesten laguntzeko, kantariak izango ditugu eszenatoki gainean.

## SOKA DANTZA

Soka dantza moduko bat dantzatuko dugu Palestinaren zauriak kantuarekin. Elkarren eskuak lotuta dantzatzea kultura askotan egiten den zerbait da. Komunitatea indartu eta ahizpatasun keinu eder bat dela iruditzen zaigu. Dantzariak gidatuko dute, baina eskuak libre dituen edonork dantzatu ahal izango du. Honekin batera bidaltzen dizuegu dantza prestatzeko behar duzuen:

- Soka dantza ikasteko bideo-tutorial laburra.

## OHARRAK

- Zutik jo, kantatu eta dantzatuko dugu.
- Aulkirik ez da izango: Txeloen kasuan adibidez, norbaitek bere aulkia eraman nahiko balu, posible litzateke, baina antolakuntzak ez du aulkirik eramango.
- Atrilik ez da eramango. Norberak bere atrila eraman edo partitura buruz ikastea gomendatzen da
  - **OHAR GARRANTZITSUA!!:**
    - EGURALDI TXARRA eginez gero, GIPIZKOA PLAZAko arkupeetan egingo da ekimena

Ekimenean parte hartu nahi duzuen eskola eta taldeen zerrenda bat gehituko da deialdian, beraz, mesedez, parte hartzeko asmoa duzuen eskola edo taldeek,

ERANTZUN DONOSTIAKO MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO EMAIL HONETARA:

**[jzeberio@donostiaeskola.eus](mailto:jzeberio@donostiaeskola.eus)**

edo, bete emailen ikusiko duzuen **FORMULARIOA**.

